

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

49. astea (2025eko abenduaren 1etik 7ra)


Gripearen birusaren zirkulazioak goranzko joerari eusten dio. Bronkiolitisaren tasak ere azken asteetako goranzko joera berarekin jarraitzen du, eta COVID-19aren tasa baxu mantendu da

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 537,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (437,6/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak gora egin du aste honetan. Bronkiolitisaren tasak gora egiten jarraitzen du eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 82 lagin jagoleen % 80,5 baieztatu da, 49 gripe-birus eta 5 ABS detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik. 11 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 22,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,0/100.000 aurreko astean).
- LMko IRA tasak eta bronkiolitis-tasak (< 2 urte) intentsitate maila baxuetan mantentzen dira, larrialdietako gripe-sindromea berriz intentsitate ertaineko mailan mantentzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 943 gripe-birus, 175 ABS eta 15 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 537,0 kasukoa izan da (437,6/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 413,8/100.000 izan da Araban, 512,8/100.000 Bizkaian eta 632,5/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 4203,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2448,6 eta 865,6 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 299,1 kasukoa izan da (217,5/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasak ESI guztietan igo dira, Arabako Errioxako ESI In izan ezik.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 49. astea	Tasa 48. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	448,5	366,8	1,22 (1,12-1,32)
Arabar Errioxako ESI	772,7	1061,4	0,72 (0,55-0,95)
Barakaldo-Sestaoko ESI	442,2	343,2	1,28 (1,13-1,45)
Barrualde-Galdakaoko ESI	517,2	452,6	1,14 (1,06-1,22)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	557,8	468,6	1,19 (1,11-1,27)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	515,7	434,6	1,18 (1,07-1,31)
Uribeko ESI	437,0	394,3	1,10 (1,01-1,21)
Bidasoako ESI	611,4	452,1	1,35 (1,17-1,55)
Debabarrenako ESI	669,9	498,6	1,34 (1,17-1,53)
Debagoienako ESI	536,4	412,4	1,30 (1,10-1,52)
Donostialdeako ESI	565,4	450,5	1,25 (1,17-1,33)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	757,3	520,1	1,45 (1,30-1,63)
Tolosaldeako ESI	727,3	489,5	1,48 (1,28-1,71)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 63,1 kasu 100.000 biztanleko balioraino igo da (44,7 /100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 580,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (516,0/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 0,9 kasutan mantentzen da (0,9/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 82 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 80,5 baieztatu dira. 49 gripe-birus (35 A(H3) eta 14 A(H1)) eta 5 ABS atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 11 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 59,8an (% 44,8 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 6,1eraino igo da (% 6,3 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 13,4koa izan da (% 17,7 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	49. astea		48. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	49	59,8	43	44,8	244	38,0
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	9	1,4
ABS	5	6,1	6	6,3	18	2,8
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	0	0,0	1	1,0	15	2,3
Adenobirus	0	0,0	1	1,0	4	0,6
Errinobirus	11	13,4	17	17,7	149	23,2
Urtaroko CoV	5	6,1	2	2,1	17	2,6
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	5	0,8

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 22,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (16,0/100.000 aurreko astean), 23,2/100.000 gizonetan eta 21,0/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 87,1 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 64,3 eta 33,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 7,5koa izan da 100.000 biztanleko (4,4/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,9koa 100.000 biztanleko (0,6/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,5koa izan da (% 0,4 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 41,2ra igo da aste honetan (% 36,7 aurreko astean), eta ABSrena % 10,7raino igo da ere (% 9,4 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 13,0ra jaitsi da (% 16,4 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	49. astea		48. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	400	1,5	279	0,4	2435	3,3
Influenza	417	41,2	289	36,7	2188	30,2
ABS	374	10,7	256	9,4	1977	5,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAREN zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu zela. Aste honetan intentsitate ertaineko mailan mantentzen da, goranzko joerarekin jarraituz.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu zen eta aste honetan intentsitate baxuko mailan mantentzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 943 gripe-birus, 175 ABS eta 15 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 943 gripe-birusetatik, 658 A motakoak izan dira, 195 A(H3), 90 A(H1)pdm09 eta batere ez B motakoak. 2025/40 astetik 3875 detekzio erregistratu dira, 3864 (% 99,7) A motakoak eta 11 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 2057 birusetatik, 1253 (% 60,9) A(H3) eta 804 (% 39,1) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko abenduak 11

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza